


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2014ko iraila

## Euskal AEko industri jarduera %1,0 gehitu zen 2014ko irailean

### Aurreko hilarekin alderatuta %3,5 jaitsi zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2014ko irailean, lan-egutegiko termino homogeneoetan %1,0 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2013ko hil beraren aldean. Aurreko hilarekin, 2014ko abuztuarekin alderatuta %3,5 jaitsi zen, urtaro-eraginak zuzenduta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-artereko aldakuntza-tasa. (%)  
Jaiegunen eraginetatik zuzendua



2014ko iraileko indizearen bilakaerak, 2013koaren aldean, joera ezberdina izan du industri talde handietan. Kontsumo-ondasunak %7,7 jaitsi dira guztira; Kontsumo-ondasun iraunkorrek %-27,4, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek %+2,0. Ekipo-ondasunak %3,9 gehitu ziren; Bitarteko ondasunak %0,3, Energia %4,1.

2014ko iraileko hil arteko aldakuntza, 2014ko abuztuaren aldean, negatiboa izan da industri talde handi guztietan, Energiari (%+2,2) izan ezik. Bitarteko ondasunak %5,4 jaitsi ziren eta Ekipo ondasunak %4,9. Kontsumo-ondasunek %-2,2 (iraunkorrek %-1,5, ez-iraunkorrek %-2,4).

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak 2014ko irailean, urte artean: Energia elektrikoa, gasa eta lurrina %3,4; Zura, papera eta arte grafikoak, %3,1; Elikadura industriak, edariak eta tabakoa %2,8.

**1. taula. Euskal AEko Industria Produzekzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntzasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak**

	m / m-12
<b>A38 SEKTORIZAZIOA</b>	
<b>SEKTORE NAGUSIAK<sup>(1)</sup></b>	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	1,8
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	3,4
09 - Kautxua eta plastikoak	-1,7
13 - Makineria eta tresneria	-0,2
14 - Garraio-materiala	2,4
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	2,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-14,8
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	3,1

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

**Iturria: Eustat. Euskal AEko Industria Produzekzioaren Indizea**

Material eta Ekipo elektrikoan urte arteko %14,8ko jaitsiera; Kautxu eta plastikoan %1,7; Makineria eta ekipoan %0,2.

Lurraldeetan, Industri Produzekzioaren Indizearen iraileko urte arteko bilakaera positiboa izan da hiruretan: Araban %3,6; Gipuzkoan %0,2; Bizkaian %0,4. Hil arteko hazkunderitasak negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Gipuzkoan, %4,2; Bizkaian %1,3; Araban %6,2, 2014ko abuztuaren aldean.

**2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Aldakuntza-tasak. Behin-behineko datuak. 2014 iraila**

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Ira2014/Ira2013	M(Ira2014)/M(Ira2013)*	Ira2014/Abu2014	Abu2014/Uzt2014
<b>Indize orokorra</b>				
<b>Euskal AE</b>	<b>1,0</b>	<b>1,1</b>	<b>-3,5</b>	<b>1,7</b>
Araba/Álava	3,6	1,8	-6,2	8,7
Bizkaia	0,4	0,2	-1,3	1,4
Gipuzkoa	0,2	1,7	-4,2	-1,6
<b>ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK</b>				
Kontsumo-ondasunak	-7,7	-3,4	-2,2	-2,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-27,4	-20,0	-1,5	-7,5
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	2,0	3,6	-2,4	-0,8
Ekipo-ondasunak	3,9	1,1	-4,9	4,3
Bitarteko ondasunak	0,3	3,1	-5,4	3,2
Energia	4,1	-1,7	2,2	1,1

(\*) 2014ko urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2013ko aldi beraren aldean  
**Iturria: Eustat. Euskal AEko industria produkzioaren indizea**

**Informazio gehiago:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua